205 zk. / 2022 urtea

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2022ko ekainaren 4tik 10erako astea.**

**I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:**

**E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

**2022/06/07**

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko ekainaren 1ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez 2022ko martxoaren 28koaren akatsak zuzentzen diren. Horren bidez, erregimen orokorreko ikastetxe pribatuetako edo itunpeko mailarik gabeko edo dirulaguntzarik gabeko irakaskuntza arautuko ikastetxeen XI. hitzarmen kolektibo nazionala erregistratzen eta argitaratzen da.9352 xedapena - 12 or.

**2022/06/10**

- **LANAREN ETA EKONOMIA SOZIALAREN MINISTERIOA. Lan hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2022ko maiatzaren 30ekoa, Lanaren Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez argitaratzen eta erregistratzen diren guztiz edo partzialki funts publikoekin eutsitako irakaskuntza pribatuko enpresen VII. hitzarmen kolektiboa aldatzeko akordioak. 9573 xedapena - 8 or.

**II.- XEDAPEN OROKORRAK:**

**E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)**

**2022/06/07**

- **GARRAIOAREN, MUGIKORTASUNAREN ETA HIRI AGENDAREN MINISTERIOA. Trenbide sarea.** Akats zuzenketa, honako errege-dekretu honena: 929/2020 Errege Dekretua, urriaren 27koa, trenbideen operazio-segurtasunari eta interoperabilitateari buruzkoa. 9290 xedapena - 1 or.

- **GAI EKONOMIKOEN ETA ERALDAKETA DIGITALAREN MINISTERIOA. Finantza neurriak.** Ebazpena, 2022ko ekainaren 6koa, Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiarena, zeinaren bidez eguneratzen den Altxorraren eta Nazioarteko Finantzaketaren Idazkaritza Nagusiaren 2017ko uztailaren 4ko Ebazpenaren 1. eranskina. Ebazpen horren bidez, autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen zorpetze-eragiketei eta eratorritakoei aplikatzekoa zaien finantza-zuhurtasunaren printzipioa definitzen da.9291 xedapena - 3 or.

**2022/06/08**

- **GOBERNUKO PRESIDENTETZA. Antolamendua.** 444/2022 Errege Dekretua, uztailaren 7koa, zeinaren bidez aldatzen den Gobernuko Presidentetza berregituratzen duen uztailaren 26ko 634/2021 Errege Dekretua.9375 xedapena - 2 or.

- **OGASUNAREN ETA FUNTZIO PUBLIKOAREN MINISTERIOA. Antolamendua.** 426/2022 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, honako hauek aldatzen dituena: Ministerio sailen oinarrizko egitura organikoa ezartzen duen urtarrilaren 28ko 139/2020 Errege Dekretua, eta Presidentetzaren, Gorteekiko Harremanen eta Memoria Demokratikoaren Ministerioaren oinarrizko egitura organikoa garatzen duen otsailaren 18ko 373/2020 Errege Dekretua. 9376 xedapena - 5 or.

- **BARNE MINISTERIOA. Hauteskundeak.** INT/511/2022 Agindua, ekainaren 3koa, zeinaren bidez hauteskunde-prozesuen erregulazio osagarriari buruzko apirilaren 16ko 605/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskineko bozka-kabinaren modeloa aldatzen den. 9377 xedapena - 2 or.

- **BARNE MINISTERIOA. Animalien osasuna.** 429/2022 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, zeinaren bidez arauak ezartzen diren ganadu-espezieen ugalketa-produktuak merkaturatzeko esparru nazionalean, eta Europar Batasunaren barruan ganadu-espezieen ugalketa-produktuen desplazamenduei aplikatu beharreko Europako arauak aplikatzeko neurriak arautzen diren. 9380 xedapena - 26 or.

- **PRESIDENTETZAREN, GORTEEKIKO HARREMANEN ETA MEMORIA DEMOKRATIKOAREN MINISTERIOA. Substantzia arriskutsuak.** 430/2022 Errege Dekretua, ekainaren 7koa, zeinaren bidez aldatzen den azaroaren 3ko 1802/2008 Errege Dekretua. Errege dekretu horren bidez, substantzia berrien jakinarazpenari eta substantzia arriskutsuen sailkapen, ontziratze eta etiketatzeari buruzko Arautegia aldatzen da, martxoaren 10eko 363/1995 Errege Dekretuak onetsia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren arabera egokitzeko haren xedapenak. (REACH erregelamendua). 9381 xedapena - 3 or.

**E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)**

**E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)**

**B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)**

**2022/06/06**

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Bizkaiko Batzar Nagusiak.** 2022eko maiatzaren 18ko Osoko Batzarrean hartutako erabagia, krisi ener"getikoaren ondoriozko premiazko zerga-neurriei buruzko apirilaren 5eko 2/2022 Foru Dekretu Arauemailea baliozkotzen dauena. I-510 xedapena - 1 or.

- **BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO FORU ADMINISTRAZIOA. Ahaldun Nagusia.** Erabakia, Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluarena, 2022ko maiatzaren 17eko 34. gaia,zertarako eta Europar Batasunak kofinantzatutako proiektuetan Bizkaiko Foru Aldundiaren udeaketa arriskuen eta iruzurraren aurkako neurrien integritate eta prebentzio Plana onartzen duena. I-486 xedapena - 39 or.

**G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)**

**E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)**

Kepa Bilbao Zubiaur
Tfno.: 94 425 25 15   Fax: 94 423.22.95
e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es
● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ● ●
MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO